

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

SUPER H

Gaitz arraroen kasuan, ikerkuntza oso garrantzitsua da. Gaitz ezezagunak dira, medikuek ez dituzte behar adina ezagutzen eta sendagaiak egiten dituztenek ez diete arretarik jartzen. Ikerkuntzak gaixo daudenen bizitza hobetzen laguntzen du.



elkarlanean



Ama,
hango hura ez al da
Ane Pirata?

Baietz esango
nuke, bai...



Zer moduz?
Urrutitik ikusi zaituztet!

Aspaldiko, Ane!
Ze poza zu kalean
ikustea. Beti ospitalean
topatzen gara...



Gaitz arraroek jende gutxiri eragiten diete. Medikuek ez dituzte ondo ezagutzen eta zailagoak dira diagnostikatzen eta tratatzen.



Gero eta gehiago ikertu, medikuek gehiago jakingo dute gaitz horri buruz. Azkarrago diagnostikatuko dituzte eta hobeto tratatu, gaixo dagoenaren mesedetan.



Lehen gaitz arraro batzuk tratatzeko Ameriketako Estatu Batuetara joan beharra zegoen. Orain, ikerkuntzari esker, Euskal Herrian ere sendatu daitezke.



Etxetik gertu zure gaitza ezagutzen duten medikuak izatea gauza handia da. Etxetik gertu eta etxekoekin sendatzea botika bikaina da.



Gaitz larria edo onkologikoa duten umeentzako eta ikerkuntzarako laguntza elkartea.

Super H superheroi bat da, eta xede nagusi bat lortzeko sortu zen: batetik, gaitz arraro eta onkologikoen ikerketan laguntzea eta, bestetik, haur onkologikoari edo gaitz larria duenari eta bere familiari laguntzea.



Haurren minbiziaren jatorriari eta tratamenduari buruzko ikerketa-proiektuak babesten eta alor horretako ikerlarien eta langile espezializatuen formakuntza hobetzen eta finantziatzen indar handia egiten du.

Gaitz minoritarioen ("gaitz arraro" izenez ere ezagunak direnak) errealitatea jendartera iristarazteko eta ingurua sentsibilizatzeko lan egiten du. Era berean, ospitalea gizatiartzeko eta gozatzeko ekimenak bultzatzen ditu.



Errekalde kalea, 1, 4 lokala. 20130 Urnieta (Gipuzkoa)
 superhache08@gmail.com / +34 635 756 411
 www.superhache.com